

## UDALBATZARI / AL AYUNTAMIENTO PLENO

**DONOSTIAKO AY.17 HIRIGINTZA EREMUKO  
BERABERA PASEALEKUAN 82AN DAGOEN  
LURZATIAREN XEHETASUN  
AZTERLANARI BEHIN BETIKO  
ONARPENA EMATEA**

**APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE  
DETALLE PARA LA PARCELA UBICADA EN  
EL PASEO DE BERABERA N.º 82 DEL  
AMBITO URBANISTICO AY.17 DE DONOSTIA/  
SAN SEBASTIAN**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko ekainaren 9an erabaki zuen hasierako onarpena ematea goian aipatu Xehetasun- azterlanari.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 9 de junio de 2020, acordó aprobar inicialmente el Estudio de Detalle de referencia.

Xehetasun-azterketa honen helburu da xeheki antolatzea Donostiako BeraBera pasealekua 82an dagoen lurzatiaren sestrapeko eraikigarritasuna. HAPOko hirigintza-arauetan gaur egun orokorrean ezarrita dagoen lerrokaduraz bestelako bat ezarri nahi da; izan ere, egungo eraikina ( baserria) Donostiako Ondare Urbanistikoa eta Eraikia Babesteko Plan Berezia katalogatua eta babestua dago (C gradua). Beraz, kasu honetan ezin da bete hirigintza-arau horietan sestrapeko eraikigarritasunari eta haren lerrokadurei buruz ezarritakoa; bateraezina da. Noski, eraikigarritasun horren azken xedea, ordezko kokapen batean, bizitegi-erabilerarekiko lagungarria izango da (trastelekua eta aparkalekua).

El objeto del Estudio de Detalle es la ordenación pormenorizada de la edificabilidad bajo rasante de la parcela situada en el Paseo BeraBera n.º 82 de Donostia/San Sebastián. Se pretende establecer una alineación alternativa a la que está establecida de forma genérica en la actualidad en las Normas Urbanísticas del PGOU; ello se debe a que el edificio existente (caserío) se encuentra catalogado y protegido por el Plan Especial de Protección de Patrimonio Urbanístico y Construído de San Sebastián (grado C), por lo que es incompatible con lo establecido en relación a la edificabilidad bajo rasante y sus alineaciones en las citadas Normas Urbanísticas. El destino final de esa edificabilidad, en una ubicación alternativa, será auxiliar al residencial ( trastero y aparcamiento).

2019ko urriaren 14ko Ebazpenaren bidez (EAES-206 espedientean), Ingurumen Administrazioaren Zuzendariak Xehetasun-azterlanaren ingurumen-txosten estrategikoa egin zuen, eta ondorioztatu zuen ez zela aurreikusten ingurumenean eragin esanguratsurik izatea.

Mediante Resolución de fecha 14 de octubre de 2019 (expediente EAES-206), el Director de Administración Ambiental formula informe ambiental estratégico del Estudio de Detalle concluyéndose que no se prevén efectos significativos sobre el medio ambiente.

2020ko uztailaren 22an, sustatzaileak beste dokumentu bat aurkeztu zuen, behin betiko onartua izan zedin. Teknikariek dokumentu hori aztertu zuten eta aldeko txostenak egin ziren ikuspuntu juridiko eta teknikitik (2020ko abuztuaren 5eko eta irailaren 21eko txostenak).

Con fecha 22 de julio de 2020 el promotor presenta nuevo documento para su aprobación definitiva que es informado favorablemente desde el punto de vista jurídico y técnico ( informes fecha 05 de agosto y 21 de septiembre de 2020).

Espedientea jendaurrera aterata egon da eta ez dira alegaziorik aurkeztu.

Durante el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones.

Espedientean jasota daude Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena

Constan en el expediente informe favorable de la Dirección General de Aviación Civil ( 03/12/2019), e informe sobre exención de redactar informe de



(2019/12/03) eta generoaren araberako eraginari buruzko txostena idaztetik salbuesteko txostena (2019/06/14).

Horrenbestez, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu, eta behin betiko onarpena ematea dagokio.

Procede, en consecuencia y de conformidad con lo establecido en el Artículo 98 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, su aprobación definitiva.

Hori dela eta, Udalbatzak hau

En base a lo anteriormente expuesto, el Pleno del Ayuntamiento

## ERABAKI DU

## ACUERDA

1º.-Donostiako AY.17 hirigintza eremuko Berabera pasealekuan 82an dagoen lurzatiaren Xehetasun Azterlanari behin betiko onarpena ematea.

1º.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle para la parcela ubicada en el paseo de Berabera n.º 82 del ámbito urbanístico AY.17 de Donostia/San Sebastián.

2º.-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, onartutako dokumentuak berekin dituen arau-xedapen eta guzti.

2º.- Proceder a la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, incluyendo las determinaciones normativas del documento aprobado.

Donostian, 2020ko irailaren 23an

San Sebastián, a 23 de septiembre de 2020

ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIO ZERBITZUKO TEKNIKARI JURIDIKOA/  
TECNICA JURIDICA DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y  
EJECUCIÓN

Izpta. / Fdo.: Amaia Gibelalde González

HIRIGINTZA JASANGAGARRIKO ZUZENDARIA  
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE

Sin. / Fdo.: Juan Antonio Chávarri Sarasua

HIRIGINTZA SOSTENGAGARRIKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA  
LA CONCEJALA DELEGADA DE URBANISMO SOSTENIBLE

Sin. / Fdo.: Miren Nekane Arzallus Iturriza